

Bokaleko Anetaren bidaia

Koldo Amestoy-ek kontatua

Gau batez Bixintxok bere emazteari erraten dio, pasa den gauean bere pinaza "norbaitek" erabili zuela. Beraz egun horretan berean, Anetak erabakitzen du pinazaren gauetako eskapaden misterioa berak argituko duela.

Gauean, Amaiur beren semea lo dagoela, sehaskatik ateratu du eta, Aneta kanpora doa. Portura jausten da... Nehor ez dago. Senarraren pinazan sartzen da eta branka aldeko "eskaputxote"an gordetzen. Amaiur besoetan, beti lo daukala.

Bapatean, ahotsak entzuten ditu. Hortxe izaki batzuk barkuan sartzen direla, xuxurlaka, txistuka, eten gabe ufaka. Laster, Anetak mugimendu arin bat sentitzen du orduan. Pinaza korrontean kulunkatuz, portutik ateratzen da. Orain, barkua itsasoko ur gainean lerratuz dabil, pilotu eta lemarik gabe, arraun eta bela barik...

Azkenean, pinaza lurreratzen da. Izaki ezezagunak jausten dira eta urruntzen. Aneta umetxoa besoetan, gordelekitik ateratzen da. Inguruan dauka, ilargiak argitzen duen eremu bat ezezaguna. Hau zer da ? Uhartea bat ala kontinente mutur bat ?

Bapatean, haize fin batek ekartzen dion erramu usainak errealitatera erakartzen du. Anetak, ondoan daukan arbolatxoari adarxka bat kentzen dio eta Amaiurren esku ahurrean ezartzen du.

Hantxet, amildegiairen pekaldean, leize-zilo bat hautematen du. Honen inguruan, izpirituak abotsak inguraka dabilta eta laster barneratzen dira. Aneta dudan dago. Gero aitzinatuz, arrokan pikaturiko eskailer batetik harpera jausten da.

Beherean gelditu eta, lurpeko gela handi baten sargian dago. Zolako paretan ate bat dago ikaragarri handia. Gela erdian, munstro bat kokorikaturik dago, izaki borobila eta argitsua. Erraldoia. Hatsartze bakoitzean, gorputza hanpatzen zaio, eta hertzerakoan, dardaraz ikaratzen...

Bere begi handiak, ate zabalari begira luzaturik dauzka beti. Inguruan izpirituak dantzan dabilta entzuten ditu Anetak. Laster, deika ari direla ere : Idek itzazue atea ! Ordua da ! Itsasoaren tenorea ! Ideki atea! Eta berehala, ate erraldoia bi bortatan idekitzen da, atezain fantasma batzuek tiraturik, edo. Munstroak bere burua altxatzen du orduan, bere aho zabal eta zehargia idekiz. Eta bapatean, ateka handitik itsasoko ura sartzen da, eta uhin batean bere ahora isurtzen, munstroak segidan iresten duena

Anetak ulertzen du orduan, begien bistan duen hori Marearen Jainkosa dela. Lur azpian bizi denez, ozeanoko ur gaziak irensten ditu eta botatzen, hori egunean bi aldiz. Hemen, itsasoko izpirituak aldizkatuz ate handia irekitzen diotelarik eta hesten.

Aneta ikaratzen da. Amaiur ez da iratzarri ere. Biratu eta eskailerari gora leizetik ateratzen da. Kanpoan, ilargiak argitzen duen ingurua lasai eta baketsua da. Semetxoa besoetan pinaza aldera doa, berriz eskaputxoteko gordelekuan kukutzeko.

Laster, ahots misteriotsuak hautematen ditu. Eta pinaza doi bat kulunkatzen hasten da, hondartza gainean lerratzen, eta orain, itsasoko ur azalean badabil...

Anetak izpirituen ahotsak entzun ditu berriz. Eta hauen gainetik, baten oihua :

"- Anderea, muga gainditu duzu ! Heriotza merexi zenuke, baina zure besoetako haur inoxent honek babesten zaitu. Atera zaitez zure txokotik eta zatoz honara ! Orain, zure barku hau sakratua da. Ez dugu erabiliko hemendik gerora !

Isiltasuna... Eta berehala, itsas zabaleko arrabotsak berriz sumatzen ditu. Aneta eskaputxotik ateratzen da. Ez da nehor pinaza barnean. Alta, ahots hori, mintzo hori...

Ilargiak lagundu ditu etxeko atariraino. Bixintxo jeiki berria da. Anetak agurtu du, eta bere joanaldia kondatu dio, amets bat balitz bezala. Senarrak entzuten du kontakizuna. Ipuin bat al da ? Amaiuren eskuan, Anetak han nonbait bildu zuen erramu adarxka, urrezko bilakatua da. Osoki urrezkoa !